



Profesionalki egoera ahulean dauden gazteak lan-munduan sartzen laguntzea, N'Djamenako Ikaskuntza eta Hobekuntza Zentro Teknikoko tresneria eguneratuz

1. Kokapena

Proiektua Txadeko N'Djamena hiriburuaren bihotzean kokatzen da, zehazki, Quartier Repos II delakoan, hiriaren iparraldean. Txad Afrikako bosgarren herrialde handiena da, 1.284.000 km²-ko azalerarekin (Frantzia baino bi aldiz zabalagoa). Herrialde honek, Afrika beltza eta Afrika arabiarra banatzen ditu. 16 milioi biztanle inguru ditu (2021), N'Djamenak, Txadeko hiriburuak, milioi bat biztanle. Nekazaritza eta abeltzaintza dira ekonomiaren ardatz, eta jarduera horiei petrolio ere gehitu zaie azken hamarkada hauetan.



2. Aurrekariak



Duela 35 urte Kristau Eskoletako Anaiak Lanbide Heziketako Ikastetxe bat sortzea beharrezkoa zela ikusi zuten, ez baitzegoen bat bera ere. Horretarako, Ikaskuntza eta Hobekuntza Zentro Teknikoa ireki zuten N'Djamenan, 15 eta 25 urte bitarteko 30 ikaslerekin. Orduz geroztik, eraikin berriak egin ahal izan dira bertaraten diren pertsona guztiei erantzun ahal izateko.

Zentro Teknikoan, ikasturtea ekainetik martxoaren amaierara arte izaten da, eta hala, tenperatura altuenetan (apirilean eta maiatzean) tailerretako beroa saihesten da. Zentro Teknikoaren hezkuntza-proiektuaren helburua da profesionalki egoera ahulean dauden gazteak hartzea, heztea eta prestatzea. Helburu orokorra, beraz, gazteak lan-merkatuan integratzea da. Eta, horretarako, 3 urteko lanbide-heziketa tailerrak eskaintzen dira elektronikan, informatikan, elektrizitatean, mekanikan eta ingeniarietan zibilean.

3. Proiektua

Txadeko lanbide-heziketari hobetzen laguntzea, lan-munduan sartzea ziurtatzeko eta herrialdearen garapenari laguntzeko.

N´Djamena hiriko gazteen heziketa teknikoa hobetzea, urtean gutxienez 350 ikaslerentzako gaitasuna duten Zentro Teknikoko ekipamendua berrituz eta modernizatuz, zeinak bermatuko baititu haien lan-munduan sartzeko aukerak eta eskualdearen garapenean parte hartzekoak.

1. Teknologia berrietara egokitutako espezializazio-tailerrak, tresneria eguneratuak instalatzeari esker.
2. Aukeratu dituzten lanbide teknikoetan gazteak trebatzea, lan-munduan sartzea ziurtatuz.
3. Automatismo tailerrerako material eta ekipamendu berriak erostea.
4. Ekipamendu eta tresneria berrien garraio eta instalazioa.
5. Ikastaro ezberdinen garapena ikasturtean zehar.
6. Ikasleen ebaluazioa eta Zentro Teknikoko ikasle ohien jarraipena.
7. Proiektuaren kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa.



4. Onuradunak

- Zentroko ikasleak (3 urtetan 1050 pertsona, 350 urte bakoitzeko)
- Ikaskuntza eta hobekuntza ikastaroak ematen dituzten irakasleak.



5. Proiektuaren kostua: 43.918 €